

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA

1. Euskadiko biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko dirulaguntzen programa 2
2. Eusko Jaurlaritzaren balio publikoa batera sortzeko proiektuen «Elkarlan» sariak 2019rako..... 4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko diru-laguntzen programa

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskadiko biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko diru-laguntzen programaren deialdia onartzen duena, 2019-2020 urteetarako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Web: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806348e.shtml>

PDF: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806348e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da banda zabal ultraazkarreko sareak «NGA eremu zuri» izendatutako Euskadiko biztanleguneetara hedatzeko laguntzen emakida arautzea. Eremu horiek ez dute NGA banda zabaleko Internetarako sarbide-zerbitzuak erabili ahal izateko telekomunikazio-azpiegiturarik, eta ez da espero hurrengo 3 urteetan halakorik izatea. Guztira 82 biztanleguneri aplikatzen zaie.

Programa honek jarraipena ematen dio Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuaren 2017ko irailaren 27ko Aginduaren bidez egindako deialdiari. Agindu horren bidez, Euskadiko biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko diru-laguntzen programa arautu eta hartrako deialdia egin zen.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak:

2019ko abenduaren 31rako, programatutako 82 guneetatik banda zabal ultralasterra 8 gunetan hedatu da. Ez da harritzekoa estalitako ehuneko txikia; izan ere, programaren aldiari zehar operadoreak eskatutako sarearen hedapenaren ondorioz, guztiz hedatutako nukleoaren ehuneko handiena laguntzen amaieran agertzea eragiten dute.

Aurrekontua gauzatzea:

2019tik 2020ra (713.370,67 €) konprometitutako gastutik 2019an % 29,91 egin da (Xedapena: 213.370,64 € Ordainduta: 213.370,64 €).

Belaunaldi berriko banda zabal ultraazkarraren zerbitzuek eragin sozioekonomiko positiboa sortzen dute nagusiki hiru inguru hauetan: Biztanlerietan, enpresetan eta administrazio publikoetan



Eragin sozioekonomikoaren laburpena:

Biztanleak	<ul style="list-style-type: none"> • Landa-despopulatzea geldiaraztea eta erronka demografikoari aurre egitea. • Langabezi tasa murriztea. • Lanaren antolaketan kultura-aldaketa (Sareko lana ...). • Lana Flexibilizatzea (ordutegia kontrolatzea, telelana ...). • Autonomia Erkidegoko per capita errenta gehitzea • 3. adinekoen gizarte-laguntza eta osasun-kalitatea hobetzea. • Irakaskuntzaren kalitatea hobetzea ikastetxeetan.
Enpresak	<ul style="list-style-type: none"> • Landa-eremuetako eta erakunde berezietako enpresa-sarearen hazkundera. • Lehendik dagoen enpresa-sarea sendotzea. • Merkatu-helburuak handitzea (globalizazioa vs bezeroa). • Produktibitatea eta lehiakortasuna handitzea. • Ekoizpen-kostuak murriztea (joan-etorriak ...). • Biztanleria aktiboaren gehikuntza. • landa-despopulatzea eta erronka demografikoari aurre egitea
Administrazio publikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazio publikoen barne-funtzionamenduan produktibitatea eta eraginkortasuna handitzea. • Eraginkortasuna handiagoa administrazio publikoen barruan zerbitzuak ematerakoan. • Kudeaketa korporatibo adimenduna ezagutzarena, informazioarena eta datuenarena (Open Data, Gardentasun-Ataria ...). • Segurtasuna eta erabilgarritasuna hobetzea. • Herritarrari zerbitzuak hobetzea, komunikazioen arintasuna eta bizkortasuna areagotzean (eAdministrazioa, eHealth, ELEARNING, eJustizia ...). • Autonomia-erkidegoetako eta tokiko herri-administrazioentzako diru-sarreraren hazkundera enpresa-jarduera handiago baten ondorioz, bereziki landa-eremuetan eta udalerrri txikietan. • Lurralde-kohesioa erraztea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Biztanlegune hedatuak	82	8
Emandako diru-laguntza	713.370,64 €	213.370,64



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Eusko Jaurlaritzaren balio publikoa batera sortzeko proiektuen «Elkarlan» sariak 2019rako

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko urriaren 15ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez onesten baita Eusko Jaurlaritzak balio publikoa batera sortzeko proiektu berritzaileetarako antolatzen dituen «Elkarlan» sarien bosgarren deialdia (2019. urtea).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904856e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2016-2020 Gobernu Programaren helburuen artean, administrazio ireki garden eta eraginkor bat aurreikusten da, herritarren parte-hartzea sustatuko duena eta, ekimen gisa, 2014an onartutako Euskadiko Demokrasiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian jasotako konpromisoak gauzatuko dituena. Konpromiso horien artean dago "esperientzia berritzaileen garapena sustatzea, gure kultura demokratikoan berritzaileak izan daitezkeen eta parte-hartzea bultzatzeko formula desberdinak esperimentatzea ahalbidetuko duten proiektu pilotuei lagunduz".

Aurreko konpromisoa 2015., 2016., 2017. eta 2018. urteetan gauzatu zen, bosgarren edizioan iragartzen diren Eusko Jaurlaritzaren balio publikoa batera sortzeko proiektuen «Elkarlan» sarien deialdiekin, herritar antolatuek eta antolatu gabeek balio publiko partekatua sortzea sustatzen duten proiektuak saritzeko helburuarekin. Horretarako, gizarte-beharrak eta -erronkak asetzen dira sei jarduera-eremu hauetakoren batean: osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikaskuntza kulturala, Gizarte-kohesioa; eta gobernantza, kultura demokratikoa eta erabakietan parte hartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurkeztutako 46 ekimenetako 2 saritu dira, berritzaileak direlako, eredugarriak direlako eta herritarren ahalduntzea dakartelako. Aurkeztutako proiektuen eragin-eremuak honako hauek izan dira: osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikaskuntza-kultura, gizarte-kohesioa, eta gobernantza, kultura demokratikoa eta parte-hartze soziala.

Hauek izan dira saritutako ekimenak:

- Asociación Cultural Deportiva Goian. Goian, aisialdiaren bitartez komunitate hezitzailea izateko gida
- Ehkolektiboa Elkartea. Ehkolektiboa, agroekologiaren bidean



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Aurkeztutako proiektuen kopurua	30	46
Web plataforman herritarrek emandako botoen kopurua	1.000	6.435